Gardentasuna eta datu irekiak

Bizkaiko Foru Aldundian

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

2022. URTEKO MEMORIA

1. Glosarioa (03)
2. Sarrera (04)
3. Bizkaiko Gardentasunari eta Datu Irekiei buruzko 2020-2022 Foru Plana (05)

1 GOBERNU IREKIAREN PRINTZIPIOETAN AURRERA EGITEA, FORU-EKINTZA GARDENAGO, IREKIAGO ETA ERANTZUNKIDEAGOA GAUZATZEAREN ALDEKO APUSTUA EGINEZ (06)
2 OPEN DATA BIZKAIAREN POTENTZIALA OPTIMIZATZEA, ETORKIZUNEKO PROIEKTU BATEN GILTZARRI GISA (10)
3 EKOSISTEMA PUBLIKO-PRIBATU KOLABORATIBO ETA BERRITZAILEA SORTZEA DATUAK IREKITZEAREN INGURUAN (13)
4 BIZKAIARENTZAT BALIOA SORTZEA, DATU IREKIEN BIDEZ (17)
5 GOBERNU ONAREN EREDUA INDARTZEA, FORU-KUDEAKETA ARDURATSU ETA GARDENA EGITEKO ERAGILE GISA (19)
6 GOBERNANTZA-EREDU ERAGINKORRA EZARTZEA, FORU-EREMUAN GARDENTASUNAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO ETA DATUAK IREKITZEKO (24)

4. Analisia (26)
5. Ondorioak (33)

Glosarioa

Zerbitzu-kartak Herritarrei Bizkaiko Foru Aldundiak eskainitako zerbitzu publikoak ezagutzera emateko eta zerbitzuen prestazioan eta ebaluazioan gardentasunaren dimentsioa gauzatzeko aukera ematen duten argitalpen irisgarriak, ulergarriak eta grafikoak dira. Argitalpenen helburu nagusia Bizkaiko Foru Aldundiak herritarrei ematen dizkien zerbitzuak hobetzea da.

Compliance Erakundeek ezarritako prozedura eta jardunbide egokien multzoa da, arrisku operatiboak eta legalak identifikatzeko eta sailkatzeko, eta arrisku horiek aurreikusteko, kudeatzeko, kontrolatzeko eta horiei aurre egiteko barne-mekanismoak ezartzeko.

Dataset Datu-base baten taula bakarraren edo estatistika-datuen matrize bakarraren edukiei dagokien datu-multzoa da, eta bertan taulako zutabe bakoitzak aldagai jakin bat adierazten du eta ilara bakoitzak lantzen ari den datu-multzoko kide jakin bat.

Irakurketa Erraza Mota guztietako testuak egokitzeko eta idazteko metodoa da. IFLAk (*International Federation Librarian Association*) eta Inclusion Europe-k ezarritako nazioarteko jarraibideen arabera arautzen da eta irakurtzeko zailtasunak dituzten herritarren beharrei erantzutea du helburu.

Hizkera Argia Hizkera Argiari hizkera laua edo herrikoia ere esaten zaio: hizkera burokratikoa eta administratiboa sinplifikatzeko helburuarekin idaztea bilatzen da, irakurleei idatzitakoa erraz ulertzeko aukera ematen dien idazteko estilo sinple eta eraginkorra lortzeko.

Atarileku Bizkaiko Foru Aldundiko langileen ataria da.

UKP-PAC Urteko Kontratazio Plana. Kontratazio-arloko plangintza ezagutzeko aukera ematen duen tresna da. Betebehar hori Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28.4 artikuluan jasota dago.

UAP Urteko Araugintza Plana. Bizkaiko Foru Aldundiaren arauzko gaien plangintza da, zehazki xedapen orokorrei dagokiena, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen ekainaren 15eko 87/2020 Foru Dekretuan jasotzen den bezala.

Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskubidea Pertsona guztiek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidea da. Informazio publikoa, administrazio publikoak dituen, prestatu dituen edo eskuratu dituen edukiak edo dokumentuak (edozein formatutan) dira.

Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskaera Herritarrek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko modua da, eta Internet bidez, zuzenean edo postaz egin daiteke.

SARRERA

Memoria honek Bizkaiko Foru Aldundiak gardentasunaren eta datu irekien arloan 2022an egindako ekintzen multzoa biltzen du. Urte horretan amaitu zen Gardentasunari eta Datu Irekiei buruzko 2020-2022 Foru Planaren indarraldia, eta bertan aurreikusitako lanak amaitu egin dira. Hala, memoria honen edukia Foru Planean jasotako ardatz estrategikoen eta jardueren inguruan egituratzen da.

Besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiak 2022an modu esanguratsuan bultzatu du datu irekietatik abiatuta Lurraldean aberastasuna sortzeko konpromisoa. Horrela, nabarmentzekoa da «Bizkaia bere datu irekien bidez eraldatzeko erronka onartuko duzu?» izeneko Open Data Bizkaia datathoiaren antolaketa. 14 taldek hartu dute parte eta soluzioak proposatu ditu hainbat arlotan, aisialdian, mugikortasunean eta jasangarritasunean, besteak beste.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak datu irekien berrerabilera bultzatu du Lurraldean, Open Data Bilbao-Bizkaia enpresa-ikasgela sortuta, EHUrekin eta Bilboko Udalarekin lankidetzan. Ekimen hori datozen bi ikasturteetara luzatuko da, eta Bizkaiko bi erakundeen datu irekien erabilera garatzea du helburu, eskaintzen dituzten zerbitzu publikoak hobetuko dituzten unibertsitate-proiektuen bidez, eta gizarteko arazoak konpontzen lagunduko duen ezagutza berria sortuz.

Bestalde, Foru Planaren indarraldiaren azken urte honetan, Bizkaiko Foru Aldundia gardentasunaren eta datu irekien arloan egiten ari den lanak finkatu eta Foru Planaren ebaluazio orokorra egin da. Hori izango da Gardentasunari eta Datu Irekiei buruzko 2023-2025 Foru Plan berria diseinatzeko oinarria. Plan berriari esker, Bizkaiko Foru Aldundiak gardentasunaren, datu irekien eta gobernu onaren arloan Lurraldean erreferentziazko erakunde gisa duen posizioa indartu ahal izango du, elementu horiek Bizkaiko foru-sektore publiko osoan zein toki-entitateetan sustatuz.

Horrez gain, esan behar da Bizkaiko Foru Aldundiak Open Data Charter-ekin bat egin duela 2022an. Horren bitartez, 170 gobernu eta erakunde baino gehiagoren lankidetza, datu irekien bilketa, partekatzea eta erabilera ahalbidetzen duten jardunbideak sustatzen dira, gobernu ona bultzatzeko.

Hurrengo orrialdeetan jarduera horiek zehaztuko dira, baita Bizkaiko Foru Aldundiak 2022an gardentasunaren eta datu irekien arloan gauzatu dituen ekintza eta ekimen gehigarri guztiak ere.

Bizkaiko Gardentasunari eta Datu Irekiei buruzko 2020-2022 Foru Plana

Bizkaiko Gardentasunari eta Datu Irekiei buruzko 2020-2022 Foru Plana, jarduketarako sei ardatz estrategikoren inguruan egituratzen da, Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiaren erronkei erantzuteko. Horien gainean eraikitzen da 2022an gauzatutako jarduketa espezifikoen hari narratiboa.

Erronka estrategikoak

1 **Bizkaia, lurralde gardena**
"Bizkaiko Lurralde Historikoak lurralde garden gisa duen irudia sendotzea, printzipio hori bultzatuz, bai Foru Aldundian bertan, bai Bizkaiko erakunde publiko eta pribatu guztietan"

2 **Publizitate aktiboko edukiak bultzatzea eta hobetzea**
"Publizitate aktiboko edukiak kuantitatiboki eta kualitatiboki aberastea, irisgarritasuna, ulergarritasuna eta datuak berrerabiltzeko aukera hobetuz"

3 **Gardentasuna Bizkaiko Foru Aldundiaren funtsezko kudeaketa-prozesuetan**
"Gardentasunaren arloan sakontzea funtsezko kudeaketa-prozesuetan, hala nola: kontratazioan, aurrekontuen informazioan, zerbitzuak ematean eta araudia egitean"

4 **Komunikazio-bide berriak hobetzea eta ezartzea**
"Gardentasun-atarirako sarbide unibertsala eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatzea, irisgarritasuna hobetuz eta komunikazio-kanal berriak garatuz"

5 **Gardentasuna kudeatzeko barne-gaitasunak**
"Aldundiaren antolaketa-kultura indartzea, gardentasunarekiko konpromisoa erabat onartuta eta integratuta egon dadin"

6 **Gardentasunaren ebaluazioa eta jarraipena**
"Gardentasunaren kudeaketa ebaluatzea, hobetzeko gomendioen ondoriozko kanpo-egiaztapena barne"

Jarduketa ardatzak

1. ardatza
Gobernu Irekiaren printzipioetan aurrera egitea, foru-ekintza gardenago, irekiago eta erantzunkideagoa gauzatzearen aldeko apustua eginez

2. ardatza
Open Data Bizkaiaren potentziala optimizatzea, etorkizuneko proiektu baten giltzarri gisa

3. ardatza
Ekosistema publiko-pribatu kolaboratibo eta berritzailea sortzea datuak irekitzearen inguruan

4. ardatza
Datu irekien bidez Bizkaiarentzat balioa sortzea

5. ardatza
Gobernu Onaren eredua indartzea, foru-kudeaketa arduratsu eta gardena egiteko eragile gisa

6. ardatza
Gobernantza-eredu eraginkorra ezartzea, foru-eremuan gardentasunaren eta datuen irekieraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko

3.1
Gobernu Irekiaren printzipioetan aurrera egitea, foru-ekintza gardenago, irekiago eta erantzunkideagoa gauzatzearen aldeko apustua eginez

Jarduteko ardatz honek gardentasuna ezarri nahi du Bizkaiko Foru Aldundian, zerbitzu publikoak modu eraginkor, ireki eta irisgarrian emateko elementu katalizatzaile gisa. Gainera, Bizkaia Gardena sendotu gura du, Aldundiak egiten duen kudeaketari buruz herritarrek jasotzen duten informazioa kalitatezkoa, egokia eta eguneratua izan dadin eta, aldi berean, Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskubidearen erabilera bermatuta gera dadin, gardentasun eta irisgarritasun estandar gorenekin bat datorren zerbitzu publikoaren bitartez. Hori guztia bat dator Bizkaiko Foru Aldundiaren irudia gardentasunarekin lotutako esparruetan erreferentziazko erakunde gisa sendotzeko helburuarekin.

Ardatz hau hedatzeko planean aurreikusitako ekintzak jarraian zerrendatzen dira:

Gobernu Errazaren irizpideak barneratzea eta aplikatzea Bizkaiko Foru Aldundiak emandako zerbitzuetan, horien diseinutik eta sarbidetik

-

Eduki eta zerbitzu berriak sartzea eta irisgarritasuna hobetzea, Bizkaia Gardena foru-gardentasunaren erreferentziazko kanalean eta foru-entitateen gardentasun atarietan

-

Zerbitzua sinplifikatzea eta hobetzea, Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskubidea (IPEE) gauzatzeko

-

Gardentasunaren dimentsioa sendotzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzu publikoen diseinuan, prestazioan eta ebaluazioan

-

Bizkaiko Foru Aldundiak gardentasunaren arloan erakunde laguntzaile gisa duen presentzia indartzea eta sendotzea

2022an, ekintza bakoitza garatzeko egin dugu lan, jarraian azaltzen den moduan:

Gobernu Errazaren irizpideak barneratzea eta aplikatzea Bizkaiko Foru Aldundiak emandako zerbitzuetan, horien diseinutik eta sarbidetik

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN IRAKURKETA ERRAZA – HIZKERA ARGIA FORU PROGRAMAREN HEDAPENA (2021-2022)

2022an, Bizkaiko Foru Aldundiak 2021ean hasitako Irakurketa Erraza – Hizkera Argia Foru Programa ezartzen jarraitu du. Programaren helburua informazio argia, erraza eta ulergarria bermatzea da, eta alderdi hauetan herritarren eskubideak zaintzeko eta bultzatzeko egiten da:

- Pertsona guztiek informazioa eskuratzeko duten eskubidean.
- Irisgarritasun unibertsalean.
- Aukera-berdintasunean, diskriminaziorik ezan eta gizarteratzean.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasunean

Nabarmendu behar da 2022an programa foru-entitateetara zabaldu dela, eta entitate horiek edukiak Irakurketa Errazera edo Hizkera Argira egokitzen parte hartu dutela.
Zehazki, 2022an, programaren ezarpenaren ondorioz, 53 eduki egokitu dira, hauek besteak beste:

- "Zelan eskatu diru-laguntza egoitza elektroniko bidez Gizatek laguntza-produktuak erosteko" eskuliburua.
- "Familia ugariaren titulu eskaera" eskuliburua.
- Autobideetarako diru-laguntzei buruzko informazioa erabiltzaileentzat
- Errenta-kartari erantsitako triptikoa
- Familia-harrerari buruzko web-atariaren eguneraketa
- Bideo-zaintzapean dagoen eremua adierazten duen kartela
- Laneko arriskuen ebaluazioa desgaitasuna duten pertsonentzat

IRAKURKETA ERRAZARI ETA HIZKERA ARGIARI BURUZKO PRESTAKUNTZA

Ildo beretik, 2022an bultzada eman zaio Irakurketa Erraza – Hizkera Argia Foru Programa foru-entitateetara zabaltzeari, entitate horiei, Bizkaiko Foru Aldundiko Zuzendaritza Nagusiei eta Zerbitzuei zuzendutako 12 prestakuntza-saioren bidez.

Prestakuntza-saio horietan "Irakurketa Erraza/Hizkera Argia; Administrazio Publikoen tresna demokratizatzailea (Informazio eskuragarri egiteko erredakzio-teknikak)" gaia landu da.

Eduki eta zerbitzu berriak sartzea eta irisgarritasuna hobetzea, Bizkaia Gardena foru-gardentasunaren erreferentziazko kanalean eta foru-entitateen gardentasun atarietan

HITZARMENEN BILATZAILEAREN ERANSKETA

Bizkaia Gardena atarian, hitzarmenen bilaketa hainbat aldagairen arabera egiteko aukera ematen duen bilatzailea sartu da: hitzarmenaren testua, sinatzen duen saila, hitzarmenaren urtea edo hitzarmen mota (diru-laguntza, esparrua, etab.).

Bilatzaileak Bizkaiko Foru Aldundiak 2021etik aurrera sinatutako hitzarmen guztiak deskargatzeko aukera ematen du.

"ERAKUNDEAREN ARAUDIA, PRESTATZEN ARI DENA" ATALAREN EGOKITZAPENA HIZKERA ARGIRA

Bizkaiko Foru Aldundiak Hizkera Argiaren irizpideetara egokitu du Bizkaia Gardena atariko "Erakundearen araudia, prestazten ari dena" atalaren edukia, ulergarriagoa izan dadin.

Zerbitzua sinplifikatzea eta hobetzea, Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskubidea (IPEE) gauzatzeko

INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKAERAK (IPEE) IZAPIDETZEKO PROZEDURA ARAUTZEA

2022an, Bizkaiko Foru Aldundian informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzeko izapidetze-prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua idatzi da.

Zehazki, araudi horrek informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen aplikazio-eremua eta eskubide horri lotutako prozedura arautuko ditu: eskaeren kudeaketa, eskaeraren edukiaren balorazioa, prozeduraren ebazpena eta ebazpenen argitalpena.

2022an, foru-dekretuaren aldez aurreko kontsulta publikoa egin da, eta jendaurreko entzunaldia eta informazioa gauzatu dira; 2023an onartzea aurreikusi da.

Gardentasunaren dimentsioa sendotzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzu publikoen diseinuan, prestazioan eta ebaluazioan

ZERBITZU-KARTEN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

2022an, Bizkaiko Foru Aldundiak 2019., 2020. eta 2021. urteetan argitaratutako 18 zerbitzu-karten ebaluazioa eta jarraipena egin du. Ebaluazio- eta jarraipen-lanen barruan sartu dira sei hilean behin jarraipena egitea, urtearen amaieran barne-ikuskaritza gauzatzea eta gogobetetze-inkestak diseinatzea eta egitea. Hona hemen ebaluatutako kartak:

1. **Arreta goiztiarra:** esku hartzeko premia antzeman eta bideratzen duen, arreta goiztiarraren eskaera kudeatzen duen eta arreta-beharrak baloratzen dituen zerbitzua.
2. **Bizkaiko Kontratazio Zentral Forala:** Bizkaiko Foru-Kontrataziorako Zentralari atxikitzearen kudeaketa, bai eta kontratazioko esparru-akordioen plangintza, lizitazioa eta esleipena ere.
3. **Garbigune sarea:** hondakinak gaika biltzeko zerbitzuaren plangintza, zerbitzua erabiltzaileen beharretara eta nahietara egokitzeko.
4. **GUFE-IFAS Bekoetxe Eguneko Zentroa:** erabiltzaileei arreta integrala eta pertsonalizatua eskaintzen die eta autonomia pertsonala babesteko edo sustatzeko hainbat zerbitzu ematen ditu.
5. **Eskualdeko Nekazaritza Bulegoak:** eskualdeko lehen sektoreari arreta, aholkularitza eta laguntza orokorra emateko zerbitzua, nekazaritzako jardunbideei eta espedienteen izapidetzeari eta bideratzeari dagokienez.
6. **Bizkaiko Foru Aldundiko Hondartza-Zerbitzua:** istripuen prebentzioa, sorospena eta hondartzen garbiketarako eta egokitzapenerako zerbitzua.
7. **Laguntza Ekonomikoa eta Juridikoa Udalentzat eta Mankomunitateentzat:** diru-laguntzen eta transferentzien kudeaketa eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen izendapena.
8. **Bizkaibus:** autobusen garraioaren plangintzarako eta kontrolerako eta garraio publikoaren erabiltzaileentzako informazioaren kudeaketarako zerbitzua.
9. **Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzua:** suteen kontrako prebentzioari eta esku-hartzeari buruzko informazio-, aholkularitza- eta sentsibilizazio-zerbitzua, bai eta pertsonen, ondasunen eta ingurumenaren babesari buruzkoa ere, Bizkaian gertatzen diren gorabehera guztietan.
10. **Eskola kirola:** eskolako kirol-jardueren kudeaketa eta sentsibilizazio-kanpainen definizioa, abian jartzea, partaidetza eta zabalkundea, bai eta kirola egitea errazten duten ekimenetarako diru-laguntzak ere.
11. **Museo sarea:** bisita gidatuei, erakusketei, jarduera didaktikoei eta museoetako piezen eta objektuen zaharberritzeari eta kontserbazioari buruzko informazioa ematen du.
12. **Bizkaiko Foru Liburutegia:** Bizkaiko Foru Liburutegian erabilgarri dauden zerbitzuak identifikatzea, hala nola dokumentazioa, informazioa, liburutegiaren erabiltzaileentzako orientazioa eta prestakuntza eta gauzatutako kultur jarduerak.
13. **Katastro eta Balorazio Zerbitzua:** higiezinen katastroaren eta landa- eta hiri-izaerako ondasun higiezinen ondorio fiskaleko balioespenaren kudeaketa.
14. **Udal kirola eta kirol azpiegiturak:** kirol-jardueraren sustapena, kirolarekin zerikusia duten eragileetan ezagutza sortuz, kirol-errealitatean sakonduz eta sareko lanak bultzatuz, bai eta teknologia berrien erabilera ere, kirola egiteko trakzio-elementu gisa.
15. **Euskalduna Jauregia – Sarrerak saldu eta kudeatzeko zerbitzua:** Euskalduna Jauregiko aretoetan antolatzen diren kultur-ekitaldietarako sarreren salmenta eta saldu osteko zerbitzuaren kudeaketa.
16. **BEAZ – I+G+Bgatiko zerga kenkariak:** I+G+Bko jarduerei buruzko kalifikazio-txostenak egiteko eskaeren kudeaketa, zerga-egoitza Bizkaian duten enpresek sozietateen gaineko zergan kenkariak lor ditzaten.
17. **Herritarrentzako aurrez aurreko arreta ez espezializatua:** herritarrek administrazio honekiko harremanetan egin ditzaketen informazio- eta izapidetze-eskaeren arreta, eraginkortasun- eta kalitate-irizpideekin.
18. **Gardentasun ataria eta informazio publikoa eskuratzea:** foru-ekintza garden, ireki eta arduratsuaren garapena, herritarrei Bizkaiko Foru Aldundiak egiten duen kudeaketari buruzko kalitatezko informazio egoki eta eguneratua emanez.

.

ZERBITZU-KARTA BERRIEN ARGITALPENA

Aurreko urteetan egindako lanekin jarraituz, eta herritarrek Bizkaiko Foru Aldundiak emandako zerbitzu publikoak ulertzen laguntzeko xedez, 2022an 2 zerbitzu-karta berri argitaratu dira:

- EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMENTZAKO GIZARTE-ARRETA ESPEZIALIZATUA: zerbitzu horiek larrialdietan eta egoera arruntetan ematen den arreta barne hartzen dute, baita arreta psikologikoa ere. Zerbitzu-kartean, Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusiak zerbitzu horiek emateko bere gain hartzen dituen konpromisoak jasotzen dira, bai eta konpromiso horiek neurtzeko erabiliko dituen mekanismoak ere.

- INTERBIAKEKO ERABILTZAILEEI ARRETA ESKAINTZEA ETA DIRULAGUNTZAK IZAPIDETZEA: zerbitzu horiek erabiltzaileen kontsultak, kexak, erreklamazioak eta iradokizunak identifikazio, izapidetze eta ebazpenarekin eta Foru Aldundiaren titulartasuneko eta zuzeneko kudeaketako bidesari-azpiegiturak erabiltzeagatiko diru-laguntzen izapidetzearekin erlazionatuta daude.

Bizkaiko Foru Aldundiak gardentasunaren arloan erakunde laguntzaile gisa duen presentzia indartzea eta sendotzea

OGPren ERAKUNDEARTEKO BIGARREN PLANAREN PRESTAKUNTZA

Aurten abiarazi dira OGPren (Open Government Partnership – Gobernu Irekirako Aliantza) gobernu irekian aurrera egiteko Erakunde arteko bigarren plana gauzatzeko lanak. Plan horren konpromisoak gobernuak aurrekontuen arloan kontuak ematea, herritarrak indartzea eta legegintza-ekimenetarako herri-kontsultak egitea dira.

Bizkaiko Foru Aldundiak OGP Euskadiren hautagaitzaren barruan hartzen du parte ekimen horretan, Eusko Jaurlaritzarekin, gainerako Foru Aldundiekin, hiru hiriburuetako udalekin eta Innobasque-Berrikuntzarako Euskal Agentziarekin batera. Hautagaitza horrek aurretik ere hartu du parte OGP ekimenean, 2018-2020 aldirako Euskadiko Gobernu Irekirako Ekintza Planaren bidez.

3.2
Open Data Bizkaiaren potentziala optimizatzea, etorkizuneko proiektu baten giltzarri gisa

Bizkaiko Foru Aldundiaren datu irekien estrategia abian jartzeari begira, Open Data Bizkaia ataria da bere hedapenaren giltzarria. Ildo horretan, 2. jarduketa-ardatz honek Open Data Bizkaiaren potentziala balioztatu gura du, barne-kudeaketako eredua hobetzeko funtsezko elementu gisa; hala, datu irekien onurak erabili gura dira, erabakiak hartzeko eta zerbitzu publikoak emateko prozesuak hobetzeko.

Plan honetan bigarren ardatz hau gauzatzeko ekintza hauek aurreikusi dira:

Bizkaiko Foru Aldundiko zerbitzuek datu-sortzaile gisa duten ahalmena maximizatzea

-

Datu irekien zerbitzurako kudeaketa-eredua diseinatzea eta ezartzea

-

Bizkaiko Foru Aldundiak datuak irekitzeko eta berrerabiltzeko dituen barne-gaitasunak bultzatzea

-

Open data barneko datuen analisirako dinamikak sortzeko palanka gisa aprobetxatzea

2022an, ekintza bakoitza gauzatzeko egin dugu lan, jarraian azaltzen den moduan:

Bizkaiko Foru Aldundiko zerbitzuek datu-sortzaile gisa duten ahalmena maximizatzea

DATASET-EN IREKIERA

2022an, Bizkaiko Foru Aldundiak azken urteetan egiten ari den eta Gardentasunari eta Datu Irekiei buruzko 2020-2022 Foru Planaren giltzarri diren dataset-ak irekitzeko lanarekin jarraitu du.

Lan hori Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusia buru dela dataset-ak identifikatzeko, baloratzeko eta ebaluatzeko lanaren barruan dago. Lan horren ondorioz, lehentasuna eman zaio dataset-ak irekitzeari, irekitzeko interesa eta erraztasuna oinarri hartuta.

Besteak beste, 2022an, honako dataset hauek ireki dira:

- Bizkaiko ortoargazkiak
- Bizkaiko Foru Aldundiko Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu zerbitzuko esku-hartzeak
- Bizkaiko foru-errepideak
- Bizkaiko NAP SAREA
- Bizkaiko kartografia 1:5.000 (BTB)
- Bisitak eta deskargak Open Data Bizkaia atarian
- Bisitak eta deskargak dataset eta egun bakoitzeko Open Data Bizkaia atarian
- Bizkaiko basa-fauna berreskuratzeko zentroa
- Azaleren urteko aitorpena
- Bizkaiko katastroko partzelak
- Abeltzaintzako ustiategien erregistroa
- Zerbitzuen funtzionamenduari buruzko komunikazioak, kontsultak, kexak eta iradokizunak
- Mahastizaintza Erregistroko lurzatiak

DATUEN IREKIERAREN PRESTAKUNTZA

Gainera, 2023an zehar irekitzeko dataset berriak prestatzen aritu da Bizkaiko Foru Aldundia. Horien artean hauek nabarmendu daitezke:

- Hondartzak
- BizkaiKOA kultur-agenda
- Ogasunaren memoria

Datu irekien zerbitzurako kudeaketa-eredua diseinatzea eta ezartzea

BAT EGITEA OPEN DATA CHARTER-EKIN

2022an Bizkaiko Foru Aldundiak bat egin du Open Data Charter ekimenarekin. 170 administrazio publiko eta erakunde pribatu baino gehiagok osatzen dute gobernu ona sustatzeko datu irekiak biltzea, partekatzea eta erabiltzea ahalbidetzen duten jardunbideak bultzatzen dituen ekimena.

Horrela, eta abenduaren 1eko 106/2020 Foru Dekretuan jasotako datuen irekierako printzipioekin bat etorriz, Bizkaiko Foru Aldundiak Open Data Charter-en 6 printzipioak bultzatzeko konpromisoa hartu du, hau da:

1. **BEREZ IREKITA DAUDEN DATUAK:** ireki daitezkeen datu guztien argitalpen-presuntzioan oinarritzen da.
2. **DATU EGOKIAK ETA OSOAK:** datu irekien garrantzian oinarritzen da, bai eta informazio originala eta osoa argitaratzean ere.
3. **DATU ESKURAGARRIAK ETA ERABILGARRIAK:** datu irekiek makina bidez irakurtzeko eta erraz aurkitzeko modukoak izan behar dute.
4. **DATU KONPARAGARRIAK ETA ELKARREKIGARRIAK:** datuak nazioarteko estandar komunetan oinarrituta argitaratu behar dira.
5. **GOBERNANTZA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA HOBETZEKO DATUAK:** datuen irekierak jarduera publikoan gardentasuna eta herritarren parte-hartzea areagotzera bideratuta egon behar du.
6. **GARAPEN INKLUSIBORAKO ETA BERRIKUNTZARAKO DATUAK:** datu irekiak gizartea garatzen lagunduko duten zerbitzu edo soluzio berriak garatzeko oinarri izan behar dira.

Bizkaiko Foru Aldundiak datuak irekitzeko eta berrerabiltzeko dituen barne-gaitasunak bultzatzea

FORU-SAILETAKO DATU IREKIEN ARDURADUNENTZAKO PRESTAKUNTZA

2021ean, Bizkaiko Foru Aldundiak Aldundiko sailetako datu irekien arduradunak identifikatu eta foru-agindu bidez izendatu zituen. Izendapen horretan, datu irekien ardura duen Zerbitzuari dagokionez, arduradunek sailaren sarrera-puntu gisa duten rola zehaztu zen, bai eta datuen irekiera sustatzeko eta datuak irekitzeko foru-proiektuaren helburuak lortzeko beharrezkoak diren zereginetan era aktiboan parte hartzeko duten erantzukizuna ere.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 1eko 106/2020 Foru Dekretuaren onespena. Horren bidez arautzen da datuen irekiera Bizkaiko Foru Aldundiaren Open Data Bizkaia datu irekien atarian zelan gauzatu. Foru Dekretu horrek aurreikusten duenez, Bizkaiko Foru Aldundian datuen irekierako prozesua behar bezala hedatzen dela bermatzeko, Foru Sailek arduradun bat izendatu behar dute sail-mailan edo Zuzendaritza Nagusi bakoitzean, datu irekien ardura duen Zerbitzuarekin koordinatzeko.

Horregatik guztiagatik, eta datu irekien ardura duen zerbitzuarekin datu irekien koordinatzaile gisa pertsona horiek duten eginkizuna indartzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak prestakuntza espezifikoa eman du 2022an, pertsona horiek rol horri lotutako eginkizunetan trebatzeko. Hala, prestakuntza hori helburu hauei erantzutera bideratu da:

- Datu irekien egungo testuingurua kokatzea, open data kontzeptua eta horren abantailak eta erabilgarritasunak sartuta.
- Open Data Bizkaia zer den, haren testuingurua eta helburu nagusiak ezagutzea, bai eta datuen katalogoa eta eskuragarri dauden zerbitzuak aurkeztea ere.
- Bizkaiko toki-entitateak Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 1eko 106/2020 Foru Dekretu horren bidez arautzen da datuen irekiera Bizkaiko Foru Aldundiaren Open Data Bizkaia datu irekien atarian zelan gauzatu.
- Datu irekien prozesua ezagutzea, bai eta Bizkaiko Foru Aldundian datu irekien kudeaketaz arduratzen diren unitateen eginkizunak ere.

Open data barneko datuen analisirako dinamikak sortzeko palanka gisa aprobetxatzea

DATUEN ANALISIRAKO TRESNEN ERABILERA

Bizkaiko Foru Aldundiak datuen analisirako tresnei buruzko prestakuntza eskaini die langileei, Power BIri buruzkoa, hain zuzen ere.

Gainera, Open Data Bizkaia atarian argitaratutako datuetan oinarrituta edozein Bizkaibus denbora errealean non dagoen jakiteko bistaratzea ari da lantzen Power BIn.



3.3
Ekosistema publiko-pribatu kolaboratibo eta berritzailea sortzea datuak irekitzearen inguruan

Datuak irekitzeko prozesuen leitmotiv-a jarduera baten garapenean sortutako informazioa eragileen artean partekatzea da, berrerabilera eta berrikuntzaren sorrera errazteko. Horrela, lankidetza-sare horiek sortzea da Open Dataren azken helburuetako bat.

Plan honetan ardatz hau garatzeko ekintza hauek aurreikusi dira:

Berrerabiltzaileekin entzute aktiboko kanalak ezartzea, datuen itxaropenak eta beharrak identifikatzeko

-

Foru-entitateekin datuak irekitzeko estrategia bateratua hedatzea

-

Toki-entitateei datuak irekitzen laguntzea, Aldundiko *Open Data Lake* izenekoaren funtsezko elementu gisa

-

Erakunde arteko lankidetza beste administrazio batzuekin, datu irekiekin sinergiak sortzeko

2022an, ekintza bakoitza gauzatzeko egin dugu lan, jarraian azaltzen den moduan:

Berrerabiltzaileekin entzute aktiboko kanalak ezartzea, datuen itxaropenak eta beharrak identifikatzeko

DATASET-EN IREKIERA KANPOKO ESKAERETAN OINARRITUTA

Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiaren helburuetako bat datu irekiak berrerabiltzen dituzten kanpoko eragileekin komunikazioko eta entzute aktiboko bideak ezartzea da, haien itxaropenak eta datu-beharrak ezagutzeko eta Open Data Bizkaia berrerabilera horretarako erreferentziako atari gisa bultzatzeko.

Testuinguru horretan, 2022an egindako entzute aktiboko lanei esker informazio geografikoari buruzko beste 5 dataset ireki dira, besteak beste:

- Hirigintza plangintza
- Bizkaiko ortoargazkiak
- Bizkaiko NAP SAREA
- Bizkaiko foru-errepideak
- Bizkaiko kartografia 1:5.000 (BTB)

OPEN DATA BIZKAIA DATATHOIAREN ANTOLAKETA

Lantik, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailari atxikitako merkataritzako foru-sozietatea da, eta Bizkaiko Foru Aldundian eta haren esku dauden entitateetan sistema informatikoak eta teknologikoak ezartzea du helburu; Bizkaiko Open Data datathoia antolatzeko lanetan aritu da Lantik 2022an: «Bizkaia bere datu irekien bidez eraldatzeko erronka onartuko duzu?».

Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiak datathoia antolatzen lagundu du. Datathoia lankidetza-garapeneko lehiaketa da eta, kasu honetan, herritarren arazoak konpontzen laguntzeko aplikazio berritzaileak diseinatzean zentratu da.

Zehazki, datathoiaren helburua Bizkaiko herritarren beharrei erantzungo dien aplikazio baten mockup bat sortzea izan da, Open Data Bizkaia atarian eskuragarri dauden datuak beste iturri batzuetako datuekin konbinatuta.

14 taldek hartu dute parte lehiaketan, eta hainbat arlotarako soluzioak proposatu dituzte, aisialdirako, mugikortasunerako eta jasangarritasunerako, besteak beste. Epaimahaiak irizpide hauen arabera baloratu ditu proposamenak:

GARRANTZIA:
- Erronkarako
- Proposatutako datu-iturrien garrantzia
- Arazo edo behar espezifiko baterako
- Proposatutako soluzioaren potentziala eta sormena

DATU IREKIEN BERRERABILERA:
- Ekonomia-eta gizarte-arloetako potentziala
- Beste datu-iturri batzuekiko elkarreragingarritasuna (loturarako potentziala)
- Sortutako bistaratzea

HELBURURAKO GAITASUNA:
- Arazoaren definizio argia
- Proposatutako soluzioaren potentziala eta sormena
- Produktuaren heldutasuna (aplikazioaren prestakuntza eta erabilgarritasuna)
- Proposatutako soluzioak onurak eskaintzea

Bi sari nagusiak soluzio hauei eman zaizkie:

LEHEN SARIA: AisiApp - helburu nagusia bizkaitarrei eta turistei Bizkaian dagoen kultur arloko eta entretenimenduko eskaintzaren ikuspegi zehatza eskaintzea da. Halaber, jarduerak garraio publikoko zerbitzuen, meteorologiaren eta beste alderdi garrantzitsu batzuen arabera planifikatzeko aukera eskaintzen du. Gainera, aplikazioak erregistratutako erabiltzaileen datuak biltzen ditu, iraganean hautatu zituzten aukeren ikaskuntzan oinarrituta intereseko jarduerak eskaintzeko.

BIGARREN SARIA: App Bizkaia – garraioari buruz eskuragarri dagoen informazio erabilgarri guztia aplikazio interaktibo eta intuitibo bakar batean zentralizatzean datza, Bizkaiko Lurralde Historikoan herritarren mugikortasuna errazteko. Herritarrentzat dituen funtzionaltasunen artean, ibilbideak gomendatzeko aukera nabarmentzen da, garraio publikoak eskaintzen dituen aukeretan oinarrituta. Modu berean, garraio publikoko zerbitzuetako langileentzako aukerak eskaintzen ditu, erabiltzaileen eskaria iragartzeko gaitasuna edo herritarren mugikortasun-lehentasunak ezagutzea, besteak beste.

OPEN DATA BIZKAIAREN AURKEZPENA MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiak Mondragon Unibertsitatearekin duen lankidetza zabalarekin jarraituz, 2022. urtean, “Datu irekiak Bizkaiko Foru Aldundian: Open Data Bizkaia” aurkeztu zaie Business Data Analytics graduko lehen mailako ikasleei.

Saio horren helburua Aldundia Open Data Bizkaiaren datu irekiak berrerabiltzaile potentzial izan daitezkeen gazteengana hurbiltzea izan da. Bizkaiko Foru Aldundiak datu irekien inguruan egiten dituen zereginen berri eman zitzaien ikasle horiei, baita datuak berrerabiltzeari lotutako aplikazio praktikoen berri ere.

DATU IREKIEN NEWSLETTERRAREN EGUNERAKETA

2022an, Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiak datu irekien newsletterra eguneratzen aritu da; herritarrek Open Data Bizkaitik harpidetu daitezke newsletter horretara.

Zehazki, newsletterrak eduki hauek ditu:

- Dataset berriak sartu dira Open Data Bizkaiaren katalogoan.
- Open Data Bizkaiari lotutako albiste interesgarriak.
- Baliabide berriak txertatu dira Bizkaia Gardena atarian.
- Bizkaia Gardena atariari lotutako albiste interesgarriak.
- Bizkaiko Foru Aldundiak parte hartzen duen Open Data arloko ekitaldi, lehiaketa eta erronka nagusiak
- Open Data arloan aurreikusitako toki eta estatu mailako ekitaldi nagusien egutegia.
- Bizkaiko Open Data arloari lotutako albiste nagusiak, Bizkaiko Foru Aldundiak gauzatutako ekintzen eta aurrerapenen hedapenean arreta berezia jarrita.

Foru-entitateekin datuak irekitzeko estrategia bateratua hedatzea

BIZKAIKOAREN KULTUR AGENDAREN ARGITALPENAREN PRESTAKUNTZA KULTURKLIK PLATAFORMAN TXERTATZEKO

2022an, BizkaiKOAren kultur agenda Open Data Bizkaia atarian eta Kulturklik kultur agendan argitaratzeko prestatzeko lanak egin dira.

BizkaiKOA Kulturklik kultur agendan txertatzeko prestaketa-lanak BizkaiKOA kultur agendan eremu berriak gehitzea ekarri du, ekitaldien geolokalizazioa, horien prezioa eta kultur ekitaldien kategorizazio berriak, besteak beste.

Toki-entitateei datuak irekitzen laguntzea, Aldundiko Open Data Lake izenekoaren funtsezko elementu gisa

DATU IREKIEN ATARI BERRIEN GARAPENA TOKI-ENTITATEETAN

2022an toki-entitateen open data bultzatzeko 106/2020 Foru Dekretuan aurreikusitako datuen irekierako proiektuarekin bat egin duten toki-entitateen datu irekiko 21 atari berri garatu dira.

BiscayTIK fundazioak Udala Zabaltzen plataforma eskaini die gobernu irekiaren eta gardentasunaren aldeko ekintzak ezarri gura dituzten udal guztiei.

Erakunde arteko lankidetza beste administrazio batzuekin, datu irekiekin sinergiak sortzeko

BAT EGITEA OPEN DATA CHARTER-EKIN

Aurretik azaldutakoaren ildotik, 2022an Bizkaiko Foru Aldundiak Open Data Charter-ekin bat egin du; bertan, gobernuak eta entitateak lankidetzan ari dira eta gobernuen datuen irekierako politika, printzipio eta jardunbide egoki komunak ematen ditu.

Lankidetza hori 2015. urtean hasi zen, eta harrezkero 100 gobernu eta entitate baino gehiagok datuen irekieraren arloan aipatutako politika, printzipio eta jardunbide egokiak garatzeko konpromisoa hartu dute.

BILBAO-BIZKAIA OPEN DATA IKASGELA-ENPRESAREN SORRERA

Bizkaiko Foru Aldundiak datu irekien berrerabilera bultzatu du Lurralde Historikoan eta, horretarako, Bilbao-Bizkaia Open Data ikasgela-enpresa sortu du Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) eta Bilboko Udalarekin elkarlanean.

Ikasgela-enpresaren helburua balioa sortzea da, Bilboko eta Bizkaiko datu irekiak berrerabiliz eta gizartea modernizatzen lagunduz. Ekimena ikasleei, irakasleei edo ikertzaileei dago zuzenduta, eta arazo sozialak konpontzeko lagungarri izango den

ezagutza berria sortzea bultzatuko du, honelako jarduketen bitartez:

- Datuak berrerabiltzean oinarritutako proiektuak gauzatzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Udalaren zerbitzuak hobetzeko.
- Datuen bistaratze berriak sortzea, unibertsitateko komunitateak proposatutako informazio irekia berrerabiltzeko ekimenetatik abiatuta.
- Enpresa Digitaleko etorkizuneko langileen trebetasun digitalak hobetzen lagunduko duten prestakuntza-ekimenak garatzea.

3.4
Datu irekien bidez Bizkaiarentzat balioa sortzea

Datu irekien potentziala ustiatzea eta horiei lotutako ekimen berritzaileak garatzea ahalbidetuko duen lankidetza-ekosistema batek benetako inpaktua sortzera bideratuta egon behar du. Horregatik, jarduketa-ardatz gehigarri bat proposatzen da, ahalegin horiek Bizkaiko Lurralde Historikorako benetako balioa duen itzulkina gauzatu ahal izateko. Balio-sorkuntza hori datu irekien potentziala maximizatzean datza, datu horiek erabilita Bizkaiko biztanleen bizitza erraztu eta lurraldearen lehiakortasunari nolabait lagunduko dioten aplikazio, produktu eta zerbitzu berriak sortzeko.

Plan honetan ardatz hau gauzatzeko ekintza hauek aurreikusi dira:

Datu irekietan oinarritutako zerbitzu berrien edo hobeen garapena bultzatzea

-

Ezagutzaren garapena eta talentuaren sorrera sustatzea lurraldean, datu irekien esparruan

-

Open Data Bizkaian oinarritutako datuak berrerabiltzeko dinamizazio-jarduerak sustatzea

2022an, ekintza bakoitza garatzeko egin dugu lan, jarraian azaltzen den moduan:

Datu irekietan oinarritutako zerbitzu berrien edo hobeen garapenaren bultzada

BILBAO-BIZKAIA OPEN DATA IKASGELA-ENPRESAREN SORKUNTZA

"Erakunde arteko lankidetza beste administrazio batzuekin, datu irekiekin sinergiak sortzeko" ekintzan aipatu denez, Bizkaiko Foru Aldundiak Bilbao-Bizkaia Open Data ikasgela-enpresa bat sortu du Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) eta Bilboko Udalarekin elkarlanean.

Ikasgela-enpresa horren helburu nagusietakoa Open Data Bizkaia atarian eskuragarri dauden datu irekiak berrerabiltzean oinarritutako zerbitzu berrien sorrera eta garapena bultzatzea da.

Open Data Bizkaian oinarritutako datuak berrerabiltzeko dinamizazio jarduerak sustatzea

PARTE HARTZEA EUSKO JAURLARITZAREN APLIKAZIO-LEHIAKETAN

Aurreko urteetan bezala, 2022an Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiekin lankidetzan, Aplikazioen Lehiaketaren laugarren edizioa antolatu zuen.

Lehiaketa hori Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien datu irekien atarietatik (Open Data Bizkaia horietako bat da) datozen datuetatik eratorritako produktuak edo zerbitzuak sortu dituzten edo sortu gura dituzten norbanakoei eta enpresei dago zuzenduta.

Lehiaketan 11 hautagai aurkeztu dira, eta aplikazio hauek saritu dira:

- **"EnEKO:** Energia aurrezteko laguntzaile adimentsua": erabiltzaileari energia aurrezten laguntzeko aplikazioa da. EnEKO laguntzaile birtuala da, eta energiaren erabilera zentzuzkoagoa egiteko behar den informazioa erraz eskuratzeko bidea eskaintzen du, energiaren prezio onena zein den jakinda.

"iApparca: Aurkitu toki libreak dituen gertueneko aparkalekua Adimen Artifizialari esker": Donostiako Udalaren datu irekietan oinarritutako web-aplikazioa da. Turistei beren bidaiak planifikatzen laguntzen die, eta, 14 egun arteko aurrerapenarekin, beren jomugatik toki libreak dituen gertueneko aparkalekua zein den adierazten du.

OPEN DATA BIZKAIA DATATHOIAREN ANTOLAKETA

"Berrerabiltzaileekin entzute aktiboko kanalen ezarpena, datuen beharrak eta itxaropenak identifikatzeko" ekintzan aipatu den bezala, Lantik sozietateak sustatu ditu aurten Open Data Bizkaia datathoiaren antolaketa-lanak: «Bizkaia bere datu irekien bidez eraldatzeko erronka onartuko duzu?».

Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusia epaimahaiko kide izan da, eta parte-hartzaileek egindako proposamenei edo informazio-eskaerei erantzun die.

3.5
Gobernu Onaren eredua indartzea, foru-kudeaketa arduratsuaren eta gardenaren eragile gisa

Jarduketa-ardatz honek, lehenik eta behin, bultzada eman gura dio, Bizkaiko Foru Aldundian, zerbitzuen kudeaketa berritzailea egingo duen eta herritarren eta beste eragile batzuen behar eta aukeretara bideratuko den kudeaketa publikoko ereduari. Aldi berean, jarduketa-ardatz hori Gobernu Onaren eredua sendotzen saiatuko da, Aldundian eta foru-entitateetan eremu korporatiboen multzoa osatzen duten elementuak finkatuz, Bizkaiko Foru Aldundiaren marka korporatiboa esanahi zabalean sendotzeko xedearekin.

Plan honetan ardatz hau gauzatzeko ekintza hauek aurreikusi dira:

Foru-mailan, baliabideen erabilerari, epeei eta herritarren aukerak betetzeari dagokienez proiektuen kudeaketa egokia erraztuko duen Administrazio Publikoko eredurantz aurrera egitea

-

Bizkaiko Foru Aldundia - foru-entitateak nodoa indartzea, politika korporatiboen arloan, kudeaketa integratu eta eraginkorraren alde

-

Foru-mailan betetze-kultura ezartzeko esparru orokorra finkatzea

-

Pribatutasuna kudeatzeko eredua (datuen babesa eta informazioaren segurtasuna) hedatzea Bizkaiko Foru Aldundian eta foru-entitateetan

2022an, ekintza bakoitza garatzeko egin dugu lan, jarraian azaltzen den moduan:

Foru-mailan, baliabideen erabilerari, epeei eta herritarren aukerak betetzeari dagokienez proiektuen kudeaketa egokia erraztuko duen Administrazio Publikoko eredurantz aurrera egitea

ZERBITZU-KARTEN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

2022an 18 zerbitzu-karta ebaluatu dira, 2019., 2020. eta 2021. urteetan argitaratutako guztiak, hain zuzen ere.

Gainera, zerbitzu-karten jarraipena egiteko, kartetan jasotako konpromisoak ebaluatu eta hartutako konpromisoen betetze-mailak argitaratu dira, baita Power BIn dauden grafikoak ere, errazago ulertzeko xedez.

ZERBITZU-KARTA BERRIEN ARGITALPENA

2022an bi zerbitzu-karta berri argitaratu dira: “Emakumearen aurkako indarkeria matxistaren biktimentzako gizarte-arreta espezializatua” eta “Interbiakeko erabiltzaileei arreta eskaintzea eta dirulaguntzak izapidetzea”.

Bizkaiko Foru Aldundia - foru-entitateak nodoa indartzea, politika korporatiboen arloan, kudeaketa integratu eta eraginkorraren alde

DANONARTEAN-EN ABIARAZTEA

Bizkaiko Foru Aldundiak DanonArtean tresna abiarazi du 2022an; tresna horren helburua Bizkaiko Foru Aldundiak eta foru-entitateek partekatzen dituzten korporazio-eremuetan kudeaketa hobetzea eta komunikazioa bizkortzea da.

Tresna honek 304 erabiltzaile eta 18 esparru korporatibo ditu:

1. Aurrekontuak eta kontrol ekonomikoa
2. Ogasuna
3. Kontratazioa
4. Giza baliabideak
5. Euskara
6. Berdintasuna
7. Gardentasuna
8. Open Data
9. Zerbitzuen hobekuntza
10. Compliance
11. Datuen babesa
12. Informazioaren segurtasuna
13. Administrazio-organoa
14. Goi-kargudunak
15. Digitalizazioa
16. Next Generation
17. Jasangarritasun energetikoa
18. Bestelakoak

Foru-mailan betetze-kultura ezartzeko esparru orokorra finkatzea

BETETZE-PROGRAMEN EZARPENA ENTITATEETAN

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak, Bizkaiko Foru Aldundiaren foru-sektore publikoko entitateetan delituak prebenitzeko eta hautemateko betetze-programak garatzeko foru-sektore publikoko entitateei emandako agindua onetsi zuen 2016an.

Horren ondorioz, foru-sektore publikoko entitateak betetze-programa horiek ezartzeko pausoak ematen hasi ziren. Lehenik eta behin, betetzearen ondorioetarako arriskutsuak izan daitezkeen prozesuak eta jarduerak identifikatu zituzten euren entitateen barruan, arrisku horiek prebenitzeko protokolo edo kontrol egokiak hobetzeko abiapuntu gisa.

Data horietatik aurrera, foru-entitateak betetze-programak ezartzen aritu dira, eta horretan jarraitu dute 2022an ere. Horri esker, urte amaieran guztira 19 betetze-programa ezarri dira foru-entitateetan.

FORU-ENTITATEETARAKO LAGUNTZA COMPLIANCE PROGRAMEI LOTUTAKO KOMUNIKAZIOAN

Foru-sektore publikoan betetze-kultura hedatzeari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak langile guztientzako komunikazio-saioak egiten lagundu die foru-entitateei, betetze-programa globala ezartzeko egiten gauzatzen ari den prozesuaren berri emateko eta langileei aplikatu beharreko elementu nagusiak (Kode Etikoa eta salaketarako kanala) zeintzuk diren jakinarazteko.

ARRISKUEN PREBENTZIORAKO NEURRI KOMUNEN PRESTAKUNTZA

2022. urtean, Bizkaiko Foru Aldundiak arriskuen prebentziorako neurri komunak eta protokoloak prestatu ditu eta entitateei eskaini dizkie, entitate guztiek oinarritzat har ditzaten:

- Know Your Supplier
- Hornitzaileen kodea
- Ustelkeriaren aurkako kodea

ZAINTZA ETA KONTROL ORGANOETARAKO PRESTAKUNTZA

Bizkaiko Foru Aldundiaren asmoetako bat foru-entitateetako Zaintza eta Kontrol Organoen (ZKO) gaitasunak indartzea da, baita gerentziak eta langileak betetzearen kulturan sentsibilizatzea eta prestatzea ere.

Testuinguru horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak prestakuntza-saioak egin ditu ZKOei, gerentziei eta foru-entitateetako protokoloekin zerikusia duten langileei zuzenduta; alderdi hauek landu dituzte:

- Zaintza Organoaren gida Compliance programak kontrolatzeko eta ebaluatzeko
- Globalsuite tresnaren erabilera
- Know Your Supplier protokoloak, Hornitzaileen Kodea eta Ustelkeriaren aurkako Kodea
- Whistleblowing zuzentaraua

Prestakuntza horiei esker, betetze-arloko balizko desadostasunak identifikatu ahal izango dituzte eta, hala badagokio, baita betetze-programekin bat egiten dela bermatzeko egokiak diren ekintza zuzentzaileak ere. Era berean, gaikuntza horren bitartez, foru-entitateetan errazago identifikatuko dituzte betetze-arloko etengabeko hobekuntzak, eta lan-jardueretan jardunbide egokiak ezarri ahal izango dituzte.

COMPLIANCE PROGRAMAREN GAINBEGIRAKETARAKO, KONTROLERAKO ETA EBALUAZIORAKO GIDA

Aurreko urteetan egindako lanei jarraipena emanez, foru-entitateetan betetze-programak kontrolatzeko eta ebaluatzeko jarraibideak ezartzen dituen Zaintza eta Kontrol Organoaren gida onartu da.

ARRISKUAK KUDEATZEKO TRESNAREN GARAPENA

2022an, Bizkaiko Foru Aldundiak arriskumapen kudeaketarako eta kontrolerako GlobalSuite tresna garatu eta abiarazi du. Tresna horrek Segurtasunaren Eskema Nazionala (ENS) eta Datuak Babesteko Araudia Aldundiaren barruan betetzeko egin beharreko kudeaketa-lanak errazten ditu.

Pribatutasuna kudeatzeko eredua (datuen babesa eta informazioaren segurtasuna) hedatzea Bizkaiko Foru Aldundian eta foru-entitateetan

TRATAMENDU-JARDUEREN ERREGISTROAREN EGOKITZAPENA DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRERA (DBEO)

Bizkaiko Foru Aldundiaren lehentasunetako bat foru-sektore publiko osoa DBEOra egokitzea da, eta hainbat urte daramatza arlo horretan lanean.

Egokitze-lan horren barruan, lehenik eta behin esan behar da Bizkaiko Foru Aldundiak 2020an Tratamendu Jardueren Erregistroa (TJE) argitaratu zuela Aldundiko webguneko Bizkaia Irekia atalean, eta hori kontroleko agintaritzari (Datuak Babesteko Euskal Bulegoa) zein Aldundiko langileei jakinarazi zitzaiela.

Testuinguru horretan, TJE hori DBEOra egokitzen jarraitu du Aldundiak 2022an, bertan jasotako tratamendu-jarduerak sortuz, ezabatuz eta aldatuz.

Era berean, bizkaia.eus-eko TJEn tratamendu-jardueren eta egoitza elektronikoaren prozeduren katalogoan argitaratutako administrazio-prozeduren arteko lotura-jarduketak egin eta GlobalSuiten kargatu ditu Bizkaiko Foru Aldundiak 2022an.

LERROKATZEA SEGURTASUNAREN ESKEMA NAZIONALAREKIN (ENS)

Bizkaiko Foru Aldundia eta, zehatzago esanda, Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusia modu aktiboan ari dira lanean Administrazio Elektronikoaren arloan Segurtasunaren Eskema Nazionala (ENS) arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretua ezartzeko.

Segurtasunaren Eskema Nazionalaren (ENS) xedea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen esparruan bitarteko elektronikoen erabileran segurtasun-politika ezartzea da, eta sektore publikoan tratatutako informazioaren segurtasuna behar bezala bermatzen duten oinarrizko printzipioek eta gutxieneko eskakizunek osatzen dute.

Ildo horretan, 2022an, Aldundiak Administrazio Elektronikoaren esparruan foru-sektore publikoa ENSrekin lerrokatzen jarraitu du, arriskuak tratatzeko plan bat eginez.

AHOLKULARITZA JURIDIKOA DATUEN BABESAREN ETA INFORMAZIOAREN SEGURTASUNAREN ARLOAN

Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiak datuen babesaren eta informazioaren segurtasunaren arloko aholkularitza juridikoa ematen dio foru-sektore publiko osoari. Informazioaren segurtasunaren arloko gorabeheretan, datuen babesaren arloko kontsultak eta eskubideen erabilera kudeatzen ditu.

Hala, 2022an, Bizkaiko Foru Aldundiak datuen babesaren eta informazioaren segurtasunaren arloko 87 kontsulta juridikori erantzun die.

Gainera, Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiak eskubideen eskaerak izapidetzeko eta ebazteko lan teknikoak egin ditu datuen babesaren arloan (ezabaketa, zuzenketa eta sarbide-eskubideak).

ZERBITZU ELEKTRONIKOEN KATALOGOA EGITEKO PROZESUAREN DISEINUA

2022an, Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzu elektronikoen katalogoa diseinatzeko eta sortzeko informazioa eta dokumentazioa (teknikoa eta juridikoa) bildu ditu. Horrela, Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzu elektronikoen katalogoa sortzeko proiektua hedatu da.

ZEHARKAKO PRESTAKUNTZA FORU-SEKTORE PUBLIKOKO LANGILEEN PRIBATUTASUNAREN ESPARRUAN

Langileen prestakuntza eta sentsibilizazioa indartu dira, datu pertsonalak babesteko eta informazioaren segurtasunerako Zeharkako Prestakuntza Planaren bidez. Prestakuntza hori Bizkaiko Foru Aldundiko eta foru-entitateetako langileei dago zuzenduta. 2022an, guztira 967 pertsonak egin dute datuak babesteari buruzko ikastaroa, eta 89 profesionalek informazioaren segurtasunari buruzko ikastaroa.

Era berean, 2022an ezarritako segurtasun-neurriei buruzko jakinarazpen espezifikoak egin ditu Bizkaiko Foru Aldundiak, gai hauetan, besteak beste: murrizketak Gonbidatuak izeneko wifi-sarea erabiltzeko orduan; pasahitzen luzeraren aldaketa; Teams-en ekipo pribatuen sorkuntza; metadatuen ezabaketa; posta korporatiborako konexioa Office 365etik; txineraz, koreeraz, japonieraz eta errusieraz jasotako mezuak berrogeialdian jartzen dituen iragazkiaren preestakuntza; Edge nabigatzailearen erabilera; gailuen zifratzea, etab. Gainera, phishing eta ransomware arriskuei buruzko kontzientziazio-pilulak erabili dira.

ARAUDIAREN EGOKITZAPENA DBEOra ETA ENSra

Datuen babesari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Tratamendu Jardueren Erregistroa (TJE) bizkaia.eus webgunean argitaratu, mantendu eta eguneratu da.

Bestalde, foru-webguneetan (bizkaia.eus eta Atarileku) datu pertsonalei buruzko informazio eguneratuta gorde da, eta argitaratutako informazioa Hizkera Argira egokitu da.

Era berean, informatzeko betebeharrari buruzko txosten juridikoak eta informazio-klausulak betetzeko gidak aztertzen jarraitu da 2022an, bai eta baliabide propioei egindako Enkarguei, Kudeaketa-aginduei eta Hitzarmenei dagokienez kontratuen arloan datuak babesteko klausula espezifikoak tratatzeko eta egiteko ere. Gainera, sortzen den araudiko berritasunak ezartzeko beharrari buruzko txostenak aztertu dira.

Bizkaiko Foru Aldundiak aholkularitza eman du hainbat eremutan, DBEOn eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoan (DPBEDBLO) zehaztutako eskakizunetara egokitzeko, bai eta sailetan eta foru-entitateetan ere, arlo horretan eta aipatutako araudietan ezarritako eskubideak gauzatzeari dagokionez. Era berean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin lankidetzan aritu da 2022an. Bestalde, informazioaren segurtasunaren esparruan, Bizkaiko Foru Aldundiarekiko eta foru-entitateekiko jarduketetan segurtasun-esfera ezartzen eta garatzen jarraitu da, Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta jarduteko eta legitimazio publikoko zenbait estandar lortzen saiatu da, Bizkaian gobernu irekia bultzatzeko ahaleginean.

Arriskuen analisiari dagokionez, Loterías y Apuestas del Estado (LAE) entitatearen arriskuen analisia eta kudeaketa ezartzeko prozesuan egin da lan, eta segurtasun-alertak ezartzea sustatu da. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundian 2020an hedatutako arriskuen analisia berrikusi, eguneratu eta balioztatu da, 2022an ondorioak izateko.

Bizkaiko Foru Aldundiak eguneratu eta balioztatu egin du 2019an eta 2020an foru-entitate guztietan arriskuak aztertzeko hedatu den prozesua, Segurtasunaren Eskema Nazionalarekin bat egiteko planaren barruan.

Era berean, Informazio eta Komunikazio Teknologien Sistemen Segurtasun Egoerari buruzko Txosten Nazionala (INES) bete da Bizkaiko Foru Aldundiarentzat, eta foru-entitateetan hori betetzeari buruzko jarraipena egin eta aholkularitza eman da.

SEGURTASUN-NEURRIEN EZARPENA ETA INFORMAZIOAREN SEGURTASUNEKO GORABEHEREN KUDEAKETA

Bizkaiko Foru Aldundiak gailuak zifratzen jarraitu du, informazioaren segurtasuna hobetzeko. Era berean, metadatuak ezabatzeko gida garatu da, Bizkaiko Foru Aldundian eta foru-entitateetan hedatzeko.

Beste alde batetik, lanean jarraitu da faktore anitzeko autentifikazio-tresna (MFA – Multifactor authentication) ezartzeko prozesuaren konfigurazioan eta hasieran.

3.6
Gobernantza-eredu eraginkorra ezartzea, foru-eremuan gardentasunaren eta datuen irekieraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko

Jarduteko ardatz honen helburua gardentasunari eta datuen irekierari lotutako barneko jarraipen eta ebaluaziorako mekanismo eraginkorrak egituratzea da, bi arlo horietan ezarritako mugarriak eta helburuak betetzen diren ala ez jakiteko. Jarraipen- eta ebaluazio-prozesu horri laguntzeko, jarduteko ardatz honen bidez Aldundiak analisi-sistematika berrietan aurrera egin ahal izatea lortu nahi da, balio handiagoko ondorioak lortzeko helburuarekin.

Plan honetan ardatz hau gauzatzeko ekintza hauek aurreikusi dira:

Gardentasunaren eta datuen irekieraren aldizkako ebaluazioa Bizkaiko Foru Aldundian eta foru-entitateetan

-

Bizkaia Gardena eta Open Data Bizkaia atariei buruzko kontsultak, trafikoa eta erabilerak aztertzeko sistemaren bilakaera, horiek ebaluatzeko eta hobetzeko mekanismo gisa

2022an, ekintza bakoitza gauzatzeko egin dugu lan, jarraian azaltzen den moduan:

Gardentasunaren eta datuen irekieraren aldizkako ebaluazioa Bizkaiko Foru Aldundian eta foru-entitateetan

GARDENTASUNAREN ETA DATU IREKIEN 2021 MEMORIAREN GAUZATZEA ETA ARGITALPENA

Aurreko urteetan egindako lanen ildotik, Bizkaiko Foru Aldundiak berrikuspena, jarraipena eta ebaluazioa egiten jarraitu du foru mailako gardentasunaren eta datu irekien esparruan.

Era berean, Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiak foru-entitateei gardentasunaren arloan laguntzen jarraitu du. Beste lan batzuen artean, zalantzak argitu, arau-aldaketen ondorioz edukiak egokitzeko barne-jarraibideak landu, eta gardentasun-atariak eguneratu dira.

GARDENTASUNARI ETA DATU IREKIEI BURUZKO 2020-2022 FORU PLANAREN EBALUAZIOA

Gardentasunari eta Datu Irekiei buruzko 2020-2022 Foru Planaren indarraldia amaitu denez, Bizkaiko Foru Aldundiak plan horren azken ebaluazioa egin du, helburu bikoitzarekin:

1. Garapen mailaren ebaluazioa: lehenik eta behin, ebaluazioaren helburua zer planean ezarritako helburuak neurritan bete diren jakitea da. Horregatik, planean zehaztutako ekintzak modu globalean eta ikuspegi kualitatibotik eta kuantitatibotik zelan garatu diren ezagutzeko prozesu gisa ulertzen da ebaluazio hori, garaian ezarritako helburuak kontuan hartuta bere. Horrek hau esan nahi du:

- Planaren ekarpenaren ebaluazio globala egitea, Foru Aldundiak eta haren esku dagoen foru-sektore publikoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-entitateek gardentasunaren eta datu irekien arloan lortutako aurrerapenei dagokienez.
- Ekintza bakoitzean lortutako mugarri nagusiak egiaztatzea eta horietako bakoitzean benetan lortutako gauzatze-egoera zehaztea.
- Ekintzen bidez lortutako emaitza nagusiak aztertzea, kasu bakoitzean zehaztutako jarraipen- eta ebaluazio-adierazleetan oinarrituta.
- Gorabeherak, arazoak eta desbideratzeak detektatzea planeko ekintzen ezarpenean eta haien jarraipen-prozesuan.

2. Etorkizuneko erronken identifikazioa: ebaluazio hori Gardentasunari eta Datu Irekiei buruzko 2023-2025eko Foru Plan berria behar bezala egiteko oinarri gisa ere erabili behar da.

Bizkaia Gardena eta Open Data Bizkaia atariei buruzko kontsultak, trafikoa eta erabilerak aztertzeko sistemaren bilakaera, horiek ebaluatzeko eta hobetzeko mekanismo gisa

OPEN DATA BIZKAIAREN ANALISIARI LOTUTAKO DATASET BERRIEN SARRERA

Open Data Bizkaia atarian datasetak etengabe irekitzeko Aldundiak egiten ari den prozesuaren esparruan, datu irekien atariarekin erlazionatutako dataset espezifikoak ireki dira 2022an.

Zehazki, dataset hauek ireki dira:

- Bisitak eta deskargak: Open Data Bizkaia atarian erregistratutako bisita eta deskarga kopurua.
- Bisitak eta deskargak dataset eta egun bakoitzeko: Open Data Bizkaia atarian dataset eta egun bakoitzeko erregistratutako bisita eta deskarga kopurua.

2022ko analisia:

Azken atal honen helburua publizitate pasiboaren eta aktiboaren arloko adierazle nagusiak erakustea da:

Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskaeren analisia

-

Gardentasunaren eta datu irekien atarien analisia

Hurrengo orrialdeetan, Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskaerei buruzko zenbait aldagairi, Bizkaia Gardena gardentasun-atariari eta datu irekien Open Data Bizkaia atariari buruzko adierazle nagusiak biltzen dira.

INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKAEREN ANALISIA

Barne-kudeaketa eta epeen betetzea, Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskaerei dagokienez

2022an, Informazio Publikoa Eskuratzeko 71 Eskaera (IPEE) erregistratu dira, Bizkaiko Foru Aldundiari zein foru-entitateei egindako eskaerak, hain zuzen ere.

Ondoren, Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskaerak jaso dituzten sailak eta eskaerak ebazteko modua erakutsiko dira.

Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskaerak sailen arabera

Iturria: bertan egina, 2022/01/01etik 2022/12/31ra bitartean erregistratutako eskaeretan oinarrituta.



Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskaerak sailen eta ebazteko eskumena duten organoen arabera

Iturria: bertan egina, 2022/01/01etik 2022/12/31ra bitartean erregistratutako eskaeretan oinarrituta.



Hauek dira eskaera gehien izan dituzten sailak: Gizarte Ekintza (eskaeren % 24a), Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala (% 22a), Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak (% 21a), Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna (% 9a) eta Ogasuna eta Finantzak (% 7a).

Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskaeren banaketa gaien arabera

Iturria: dokumentu honen egileek egina, 2022/01/01etik 2022/12/31ra bitartean erregistratutako eskaeretan oinarrituta.



Zelan izapidetu ziren jasotako eskaerak?

2022an, informazio publikoa eskuratzeko 71 eskaera jaso ziren. Horietatik 55 (% 77,46a) egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu ziren, eta 16 (% 22,54a) paperean.

Zelan ebatzi ziren eskaerak?

2022an Informazio Publikoa Eskuratzeko jasotako 71 Eskaeretatik 61 baietsi egin ziren; 1 era partzialean baietsi zen; 2ri ezezkoa eman zitzaien; 2 beste administrazio batera eraman ziren; 1 ez zen izapidetzeko onartu; 1 atzera bota zen, eta 3 oraindik ebatzi barik daude.

IZAPIDETZERA ONARTUAK

99%

Eskaera aztertu ondoren, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 22. artikuluan ez onartzeko ezarritako arrazoietan ezarritakoaren arabera, izapidetzera onartu da, artikulu horretan adierazitako inguruabarrik ez zegoelako.

BAIETSIAK

97%

Eskaera aztertu ondoren, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzeko mugei buruzko 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, ez dago eskatutako informazioa eskuratzea ezesten duen inolako kasurik.

EZETSIAK

3%

Eskaera aztertu ondoren, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzeko mugei buruzko 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, ezetsi egin da, artikulu horretan aipatutako inguruabarretako bat dagoelako.

EZ ONARTUAK

1%

Eskaera aztertu ondoren, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 22. artikuluan ez onartzeko ezarritako arrazoietan ezarritakoaren arabera, ez da izapidetzera onartu, artikulu horretan aipatutako inguruabarretako bat dagoelako.

GARDETASUNAREN ETA DATU IREKIEN ATARIEN ANALISIA

1. BIZKAIA GARDENA (www.gardentasuna.bizkaia.eus)

Erabiltzaileen ikuspegi orokorra:
2022an, guztira 62.098 erabiltzaile erregistratu dira (% 1eko igoera), eta gehienak erabiltzaile berriak dira (atariko sarreren % 85a).

ERABILTZAILEAK www.gardentasuna.bizkaia.eus

Iturria: bertan egina, 2022/01/01etik 2022/12/31ra gardentasun-atarian erregistratutako bisitetan oinarrituta



WEBGUNE BISITATUENAK www.gardentasuna.bizkaia.eus

Iturria: bertan egina, 2022/01/01etik 2022/12/31ra gardentasun-atarian erregistratutako bisitetan oinarrituta



WEBGUNE BISITATUENAK www.gardentasuna.bizkaia.eus

Iturria: bertan egina, 2022/01/01etik 2022/12/31ra gardentasun-atarian erregistratutako bisitetan oinarrituta

1. Zerbitzu-karta – Herritarrentzako aurrez aurreko arreta ez espezializatuko zerbitzua
2. Zerbitzu-karta – Euskalduna Jauregia
3. Zerbitzu-karta - Bizkaibus
4. Zerbitzu-karta – Katastro eta balorazio zerbitzua
5. Goi-kargudunen *curriculum* profesionala
6. Zerbitzu-karta – Eskola kirola
7. Hitzarmenen kontsultak
8. Erakundearen araudia, prestatzen ari dena
9. Informazio juridiko arauemailea
10. Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila

HITZ BILATUENAK www.gardentasuna.bizkaia.eus

Iturria: bertan egina, 2022/01/01etik 2022/12/31ra gardentasun-atarian erregistratutako bisitetan oinarrituta

1. Zerbitzu-kartak
2. LPZ
3. Bizkaia
4. c2
5. Kontaktua
6. Hitzarmena
7. Tasak
8. Dirulaguntza izenduna
9. Eskola-kirola
10. Direktorioa

2022an, Bizkaia Gardena atariko 12 kontzeptu deskargatuenen batura 125.931 deskargakoa da, eta kontzeptu horiek ekitaldiko deskarga guztien % 63a dira. Deskarga horiek honela banakatzen dira:

DESKARGA KOPURUA www.gardentasuna.bizkaia.eus

Iturria: bertan egina, 2022/01/01etik 2022/12/31ra gardentasun-atarian erregistratutako bisitetan oinarrituta



ATARIAN SARTZEKO GAILUAK www.gardentasuna.bizkaia.eus

Iturria: bertan egina, 2022/01/01etik 2022/12/31ra gardentasun-atarian erregistratutako bisitetan oinarrituta

Telefono mugikorra	PCa	Tableta
% 28	% 71	% 1

2022an, Bizkaia Gardena atarira sartu diren erabiltzaileen % 82,29 Estatuko biztanleak dira, eta guztizkoaren % 52 Euskadiko herritarrak. Erabiltzaileak bizi diren hiriari dagokionez, bisiten % 31,20 Bilboko biztanleenak dira.

BISITEN JATORRIA www.gardentasuna.bizkaia.eus

Iturria: bertan egina, 2022/01/01etik 2022/12/31ra gardentasun-atarian erregistratutako bisitetan oinarrituta



2. OPEN DATA BIZKAIA (www.opendatabizkaia.eus)

Erabiltzaileen ikuspegi orokorra
2022an, guztira, 103.176 bisita izan ziren Open Data Bizkaia atarian (aurreko ekitaldian baino % 47 gehiago).

BISITAK WEBGUNEETARA www.opendatabizkaia.eus

Iturria: bertan egina, 2022/01/01etik 2022/12/31ra Open Data atarian erregistratutako bisitetan oinarrituta



DATU-MULTZO BISITATUENAK www.opendatabizkaia.eus

Iturria: bertan egina, 2022/01/01etik 2022/12/31ra Open Data atarian erregistratutako bisitetan oinarrituta

1. Lanpostuen zerrenda eta behin-behineko langileen ordainsariak
2. Goi-kargudunen ordainsariak
3. Funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda
4. Hirigintza-plangintza - Sopela
5. Bizkaiko 1:5.000 kartografia (BTB)
6. Emandako dirulaguntzak
7. Bizkaiko ortoargazkiak
8. Bizkaibus
9. Foru-egitura organikoa
10. BizkaiBus - Karrantza Harana

HITZ BILATUENAK www.opendatabizkaia.eus

Iturria: bertan egina, 2022/01/01etik 2022/12/31ra Open Data atarian erregistratutako bisitetan oinarrituta

1. Ortoargazkiak
2. Dirulaguntzak
3. Bizkaibus
4. Katastroa
5. Ondasunak
6. Ordainsariak
7. Bisitak
8. Agenda
9. Hauteskundeak
10. UKP-PAC

DESKARGA KOPURUA www.opendatabizkaia.eus

Iturria: bertan egina, 2022/01/01etik 2022/12/31ra Open Data atarian erregistratutako bisitetan oinarrituta



ONDORIOAK

2022a funtsezko urtea izan da Bizkaiko Foru Aldundiak gardentasunaren eta datu irekien arloan egiten dituen jarduketen finkapenean eta garapenean; izan ere, pauso hauek eman dira:

- Alde batetik, Gardentasunari eta Datu Irekiei buruzko 2020-2022 Foru Planak bultzatutako ekimenak sendotu dira.

- Eta bestetik, plan horren betetze mailaren ebaluazio orokorra egin da, eta 2023-2025 aldian Aldundiak izango dituen erronkak identifikatu dira.

2022ko jarduketa espezifikoei dagokienez, lehenik eta behin Aldundiak kanpora begira egin duen lan bereizgarria nabarmendu behar da, entzute aktiboa bultzatzeari eta datu irekien berrerabilera sustatzeari dagokienez, batez ere.

Horren erakusgarri da Open Data Bizkaia Datathoia, «Bizkaia bere datu irekien bidez eraldatzeko erronka onartuko duzu?» lelopean. Datathoia Lantikekin batera antolatu da, eta datu irekien berrerabilera dinamizazioan ekimen aitzindaria da Bizkaian. Horren bidez, herritarrek datu irekietan oinarritutako soluzioak diseinatu ahal izan dituzte.

Era berean, nabarmentzekoa da Open Data Bilbao-Bizkaia ikasgela-enpresa abian jarri dela, Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) eta Bilboko Udalarekin lankidetzan. Ikasgela horren helburua datu irekien berrerabilera eta datu horietan oinarritutako ekonomia digitaleko soluzioen diseinua sustatzea da, ikasleek osatzen duten lehentasunezko kolektiboan.

Gainera, mugarri gisa nabarmendu behar da Bizkaiko Foru Aldundiak bat egin duela Open Data Charter kartarekin. Lankidetza horretan, 150 herri-administrazio eta entitate pribatu baino gehiago daude sartuta, eta zenbait jardunbide sustatzen dituzte datu irekiak biltzeko, partekatzeko eta erabiltzeko, horrela gobernu ona bultzatzeko.

Bestalde, barrura begira, datuen irekierako foru-proiektua sendotzera bideratu ditu ahaleginak Bizkaiko Foru Aldundiak 2022an, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 1eko 106/2020 Foru Dekretua kontuan hartuta. Dekretu horren bidez datuen irekiera Bizkaiko Foru Aldundiaren Open Data Bizkaia datu irekien atarian zelan gauzatu arautzen da.

Horretarako, Aldundiak indar osoz bultzatu du langileei datu irekien inguruko prestakuntza ematea, bai langile guztiei zeharka, bai foru-sailetan datu irekien ardura dutenei berariaz, haien rolari lotutako eginkizunetan. Gainera, 2022an jarraipena eman zaio Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiak Aldundiko sailekin eta zuzendaritza nagusiekin eta foru-entitateekin duen lankidetzari. Horren bidez zabaldu egin da Open Data Bizkaiaren datuen katalogoa, 309 dataset berri sartuta.

Azkenik, interesgarria da aipatzea 2022an Aldundiak finkatu egin duela gardentasunaren eta betetzearen arloan nodo gisa Bizkaian duen zeregina, eta, ildo horretan, sailekin, zuzendaritza nagusiekin eta foru-entitateekin egin den laguntza-lan zabala nabarmendu behar da. Lan horri esker, besteak beste, urte amaieran 19 betetze-plan daude ezarrita foru-entitateetan.

Eta esandako guztia kontuan hartuta, 2023-2025 aldia aukeraz beteta dator, Bizkaiko Foru Aldundiak gardentasunaren eta datu irekien arloan duen lidergoa indartu dezan, eta, era berean, jardunbide berritzaile berriak txerta ditzan, eta arlo horietan planteatzen diren erronka eta joera berriei erantzuteko erreferentziazko posizioan jar dadin.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral